

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

2020ko ekonomi jardueren gaineko zergaren matrikula jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita 2020ko ekonomi jardueren gaineko zergaren errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, aztertu eta egokitzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Zerga hori ordaintzeko epea 2020ko irailaren 3tik azaroaren 3ra artekoa izango da.

Jarduerak sailkatzeko ekintzen aurka aurkezten diren berraztertze errekurtsoak eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren 229. artikulutik 246. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertze errekurtsoa ebazteko organo eskuduna.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 25ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE